

## **Bizar zuri**

Gabonak, Gabonak, hau zoriona,  
bertsotan ari zaigu gaur aitona,  
ja, ja, ja barrezka dago amona.

Bizar zuri, bizar zuri,  
mendi gainak, zuri, zuri,  
zorionak, zorionak,  
bertan ditugu Gabonak.

Tximini zulotik norbait sartu da  
mutur beltz, begi gorri, aibalio,  
Olentzero dela, halaxe dio.

Bizar zuri, bizar zuri,  
mendi gainak, zuri, zuri,  
zorionak, zorionak,  
bertan ditugu Gabonak.

Laster urte berri, gaur Olentzero,  
alferrontzi, mozkor eta tripero,  
hor dago sutondoan bero, bero.

Bizar zuri, bizar zuri,  
mendi gainak, zuri, zuri,  
zorionak, zorionak,  
bertan ditugu Gabonak.



## Din don dan

Din, don, dan  
din, don, dan,  
gabonak dira  
txistua danborra  
goazen jotzera.  
Din, don, dan,  
din, don, dan  
gabonak dira  
txistua danborra  
goazen belena.

La la la la la la...

Heldu da, heldu da  
gabon eguna  
Belenen jaio da  
Josu haurtxoa (4 aldiz)



## Gabonetan

GABONETAN GABONETAN  
GABONETAN TURROI TA MAZAPAIA (bis)

Hotz handia  
Ari du euria  
Horra hor mendia  
elurrez josia (bis)

Belengo  
portalean  
Hiru errege mago  
eta Olentzero (bis)

Familian  
pozik gaude  
Gabon kantak abesten  
bizi bizi ta ozen (bis)

## Halaken, halaken

Halaken, halaken  
ala pikula tum paire  
errespun dela pikula tunpa  
Jesus Maria Jainkoa zen.

Adiskideok:  
ikusiduzue zelai  
horietan artzainak  
artzain txiki, artzain handi,  
artzain mutur leuna.

## Hator, hator

Hator, hator, mutil etxera  
gaztainak ximelak jatera  
gabon gaua ospatuzeko  
aitaren ta amaren ondoan  
ikusiko duk aita barrezka  
amaren poz atseginez.

Eragiok mutil aurreko  
danbolin hori.  
Gaztainak erre artian  
gazteinak erre artian  
txipli, txapla, pum  
gabon gaua pozik  
igaro daigun. (bis)



## **Gaur gabon**

Gaur gabon, gaur gabon  
gaur gabon, gabon gaua  
gaur gabon, gaur gabon  
gaur gabon, gaua.

Olentzero badator  
gaur gabon, gaur gabon  
bera nondik dator  
gaur gabon gaua  
goazen gu galdetzera  
artzainekin batera...

Gaur gabon, gaur gabon  
gaur gabon, gabon gaua  
gaur gabon, gaur gabon,  
gaur gabon gaua.

Olentzero euskaraz  
gaur gabon, gaur gabon  
gu guztiok bezala  
gaur gabon gaua  
ikastolan ikasi  
ta kalean hitz egin...

## **Horra Mari Domingi**

Horra Mari Domingi  
begira horri  
gurekin nahi duela  
Belen etorri  
gurekin nahi badezu  
Belen etorri  
atera beharko dezu  
gona zahar hori.

Ator, ator,  
zure bila nenbilen ni (bis)  
atoz goazen adora dezagun  
Belenen jaio den  
hautxo eder hori  
hautxo eder hori

## Kax kax

Kax, kax, kax atean  
Nor dabil etxean?  
Ikusi makusi  
Nor naizen ikasi

Praka zabalak  
Atorra urdina

Ai ene! ez dakit ezer ez ez ez  
Ai ene! kontatu mesedez (Bi aldiz)

Kax, kax, kax atean  
Nor dabil etxean?  
Ikusi makusi  
Nor naizen ikasi


Mutur zikina  
Txapela beltza

Ai ene! ez dakit ezer ez ez ez  
Ai ene! kontatu mesedez (Bi aldiz)

Kax, kax, kax atean  
Nor dabil etxean?  
Ikusi makusi  
Nor naizen ikasi

Pipa ahoan  
Ardoa bertan

Bai, bai, bai lehen orain eta gero  
Zu zara gure Olentzero



## Olentzero joan zaigu

Olentzero joan zaigu  
mendiran lanera  
intentzioarekin ikatza egitera  
aditu zuanian, Jesus jaio zela  
lasterka etorri zen, berri ona ematera.

Horra, horra, gure Olentzero  
pipa hortzian duela eserita dago  
kapoia ere baitu,  
arrautzatxuekin  
bihar meriendatzeko  
botila ardoakin (bis)

Olentzero buru handia  
entendimenduz jantzia  
bart arratsean edan omen du  
bost arruako zagia (bis)  
hau duen tripa handia,  
tralalalala... (bis)

